

Irene Solà

DIKEAK



ALBERDANIA



Irene Solà **DIKEAK**



ALBERDANIA



DIKEAK

*Bitartean ibillico dira becatutic becatura amilduaz;
oraiñ pensamentu batean, guero seago itz loyak gozotoro aditzean:
oraiñ escuca, edo queñada batean, guero musu edo laztanetan: oraiñ ipui ciquiñac contatzen, guero dantzan,
edo dantza ondoan alberdanian.*

J.B. AGIRRE

JATORRIZKO IZENBURUA: *Els dics*, L'Altra Editorialek argitaratu zuen lehen aldiz.

*Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren laguntza izan du liburu honek. Conduc tum crei
pra morum confecum nonstracchum poporum adhuidelic iam dien ter atum. Fulicitiam ignatum mis.*



Liburu hau itzultzeko Institut Ramon Llull-en laguntza jaso dugu.

I. EDIZIOA: 2022ko urria.

© 2018, Irene Solà Saez

MB Agencia Literaria, S.L.-ren bitartez.

© Itzulpenarena: 2022, Joxan Elozegi

© Argitaraldi honena: 2022, **ALBERDANIA, SL**

Istillaga, 2, behe C - 20304 Irun

Tel.: + 34 943 63 28 14

alberdania@alberdania.net

www.alberdania.net

Azaleko irudia: Yael (Pixabay)

Inprimatzailea: Ulzama (Uharte, Nafarroa)

ISBN: 978-84-9868-766-8

ISBN digitala: 978-84-9868-767-5

Legezko gordailua: D. 1179/2022



DIKEAK

IRENE SOLÀ

ITZULPENA JOXAN ELOSEGI

ALBERDANIA
eleberria

Taula

(EKAINA)

(UZTAILA)

(ABUZTUA)

(BURUILA)

NOTE: This is a work of fiction, only in that, in many cases, the author could not remember the exact words said by certain people, and exact descriptions of certain things, so had to fill in gaps as best he could... Any resemblance to persons living or dead should be plainly apparent to them and those who know them, especially if the author has been kind enough to have provided their real names and, in some cases, their phone numbers¹.

DAVE EGGERS, A Heartbreaking Work of Staggering Genius

*When Floods have slit the Hills –
And scooped a Turnpike for Themselves –
And trodden out the Mills –²*

EMILY DICKINSON

*aquí em tens 'nar posant dics
que el teu doll m'anegaria,
i tu vinga posar dics
que el meu broll t'ofegaria.³*

LAURA LÓPEZ GRANELL

Oin-ohar:

- 1 OHARRA: Fikzio lana da hau, eta hala izateko arrazoia duzu autoreak ezin oroitu dituela batzuek zehatz-mehatz esan dituzten hitzak, ez eta zenbait gauzaren deskripzio zehatza ere, eta ahal bezala bete behar izan ditu hutsuneak... Normala litzateke, haien beren edo haien ezagunen kasuetan, pertsonaiei bizirik edo hilik dauden pertsona fisikoen antza hartzea, autoreak haien egiazko izen-abizenak eta, zenbaitetan, egiazko telefono-zenbakia, emateko bezain adeitsu jokatu duenean batez ere. (*Itzultzailearen Oharra*, aurrerantzean *I.O.*)
- 2 Uholdeek mendiak arraildu dituztenean – Eta eurentzat bidesaria ordaindu beharreko autopista lortu dutenean – Eta errotak porroskatu dituztenean. (*I.O.*)
- 3 Hemen naukazu dikeak paratzen / ito bainintzake zure zurrustak / eta zuk dikeak eraiki eta eraiki / ito baitzintzake nire zurrustak. (*I.O.*)

(EKAINA)

HONA hemen Ada.

Hona hemen Adaren ordenagailuaren teklak, erne, oldarraren zain.

Hona hemen Adaren hatzak, idazten ari dira: «Iratzarri egin zen Lluís, arrunt garatua baitzen harengan etxearen eta bere gauzen gaineko babes eta erantzukizun zentzua».

LEPAZURIA

Iratzarri egin zen Lluís, arrunt garatua baitzen harengan etxearen eta bere gauzen gaineko babes eta erantzukizun zentzua. Ilunpetan jaiki zen eta adi gelditu. Argia zen, gutxi-asko, soinua. Begiak goititu eta galdetu egin zuen Victòriak:

–Zer da?

Teila bat altxatua zuen norbaitek teilatuan eztiki.

–Ez dakit.

Airean eduki zuten segundo batzuetan eta kontuz utzi ondoren. Urrats zuhur batzuk entz un ziren gero eta beste teila bat altxatu zuten.

Behin eta berriro hartu zituen orduan Lluísek etxearen itxura eta egitura gogoan. Lorategia, balkoia, atzealdeko mendia, baratzeko lanabesen aldategia, haritzak. Ganbaratik baizik ez zitekeen teilatura igo. Edredoiaren barrenean soinurik atera gabe mugitu eta beragana hurbildu zen Victòria.

–Zer ote da? –galdetu zuen.

–Xxt –egin zuen Lluísek.

Baina ez zuen besterik entzun.

Bigarren gauean, luzaroago iraun zuen soinuak. Victòria esnatu zeneko, sabaira begira zegoen Lluís. Kaka zaharra esan eta berehala eseri zen ohearen ertzean. Txapinak jantzi zituen. Behean sumatu zuen Lluís, sarrerako armairuan miaka. Jangelako atetik jalgi zen, argia piztu gabe. Zutitu eta leihoraino hurbildu zen Victòria. Udaberria zen eta belarra bustia, eta espartinak blaitzen zituen hezetasunak. Linterna handi bat zeraman ezkerreko eskuan. Etxe aldera begiratu gabe zeharkatu zuen lorategia. Gaua iluna zen eta nabaria lur usaina. Bira egin eta teilatu aldera zuzendu ondoan piztu zuen linterna. Atzeko zangoen gainean zutitu zen animalia luze bular xuri bat, eta begira gelditu zitzaion. Pindartsu distiratsen zitzaizkion begiak. Orduan, bere lau zangoen gainean jarri zen berriro animalia eta teilatuan barrena ekin zion ondoren lasterrari. Adak eta Quimek lo egiten zuten gelaren gaineko aldetik haritz batera jauzi egin eta

galdu egin zen begietatik. Esku-argia beheiti eraman zuenean ikusi zuen Lluísek Victòria, leihotik begira.

–Hudoa zela uste dut, habien bila txitoak jateko.

–Pertsona bat zirudien –esan zuen Victòriak.

Ohean sartu eta besarka hartu zuen Lluísek. Hormatuak zeuzkan oinak.

–Badakigu non dauden katakumeak –gaineratu zion Victòriak ahapetik.

–Bai.

–Zer egingo dugu?

–Teilak ongi paratu eta Balladorri deituko diot bihar –esan zuen Lluísek.

–Zer emango dizu?

–Ez dakit, zerbait ere espero dut.

–Polita zen? –galdetu zion Victòriak.

–Ezin ederragoa –esan zuen Lluísek, eta lepondotik pasa zion besoa, azala hotz.

–Baina ezin ditu teilak ukitu –esan zuen Victòriak.

–Ez.

Ez zen hudoa. Lepazuria zen. Antzekoa, baina kolorez argiagoa.

Teilatura igo zen Lluís biharamunean. Hutsik topatu zuen habia bat eta harrika bota zuen gainetik. Bero atsegina zen han gainean, eguzkitik horren hurbil. Hamaika eta erdietan deitu zion auzokoari. Inguruko etxalde batean bizi zen Vicenç Ballador. Ez zen urbanizazio etxea. Laborari etxea zen. Izena eta guzti: Can Ballador.

Gainezka egiten zuen gizaseme nortasun zakarra, musu gorria eta jatorriko mahuken azpiko beso iletsuak alde bat utzirik, egundainoko dantzari bikaina zen Can Balladorko Vicenç. Egokia eta argia zen guztiz haren erritmo eta aldaka kontzeptuen nozioa. Ezinezko zirudien bizkar erraldoi eta hatz ezin lodiago haietaz deus ere fintasunez mugi ahal izatea, are eta gutxiago emakume baten gorputza, are eta gutxiago konpas jakin baten erritmoan. Baina herriko Jai Nagusian gau osoan egiten zuen dantza. Haren emaztea nekaturik bazen, auzokoekin dantzatzen zen. Ez zioten emakumeek bereziki axola, dantzak axola zion. Eta izerditu egiten zen, eta haren ukitua hezea zen eta basurde eta gizonezko kolonia usaina zerion.

Estriknina, hauts xuri bat, eman zion toxatxo batean Vicenç Ballador laborari ehiztariak. Hamabost euro kobratu zizkion eta garai batean emakumeek hartzen zutela esan zion, abortatzeko. Esan ere egin zion animalia eskopetaz akabatu ahal izango zuela, nahi bazuen. Pozoia nahiago zuela erantzun zion Lluísek, eta baietz egin zuen laborari ehiztariak buruaz eta bostekoa eman zion gero. Larre-gizon horietakoa zen, bi hatz galdu zituen alorrean ari zela istripu batean eta hamar urteko semea zuen, Vicenç izenekoa bera ere, ordukoz lehen orkatza hila zena. Despedida gisa bisera puntan ukitua egin eta autoan sartu zen ondoren.

Ilunabarrean, bola bat prestatu zuen Lluísek, gorria eta trinkoa, haragi pikatuaz. Ada eta Quim bainatzen ari zen Victòria. Saskibaloian ari zen Nàdia eta bederatzietarako joango zitzaizkion bila. Haragiaren barrenean nahasi zuen hauts xuriaren erdia. Beirazko poto batean isuri zuen estrikninaren gainerakoa eta despentsan gorde zuen ondoren. Ongi. Lorategira irten eta haritzaren azpian utzi zuelarik, saldarako gaiaren itxura zuen haragi bolak.

Gau hartan, ilunpean lo zegon Victòria eta, haren ondoan zetzala, hagitz urrun imajinatu zuen Lluísek lepezuria, beste herri batzuetako zuhaitzetan goiti, masien gaineko teilatu gorabeheratsu, marroi eta horien gainean. Sorrabonicako urbanizazioko etxeetako teilatu gorri, zuzen eta distiratsuetatik urrun, lorategi eta pizina eta horma berri eta meheetatik urrun. Eta gogora etorri zitzaion haragi bola, haritzaren azpian, bere hartan. Eta gogora etorri zitzaion Hernándeztarren zakurra, hiru etxe harago bizi baitziren. Eta ikusi zuen haragi bola usnatzen eta atzematen, urduri. Eta ikusi zuen jaten, zango ttikiak baino bi aldiz luzeagoa zen buztanari eragiten. Eta hiltzen, bere baitan kiribildurik. Katu basati saldo handi bat ikusi zuen gero. Haragi bolarekin egundainoko oturuntzan ari ziren katu basatiak. Tripak ateratzen eta elkarri puskak purrusta bizian kentzen, lehoien moduan, zeinek bere puska alde banatan jaten. Hilak denak. Lorategia, katu hil eta haragi pikatuz beteriko gudu-zelaia. Quim ere ikusi zuen, bola topatzen. Ez zuen jan, heldu egin zion, jakin-minak kitzikaturik. Haragi pikatuz eta hauts xuriz lokazturiko hatz ttikiak arratsaldeko askariko ogitartekoari eusten.

Goizaldeko ordu bietan, kontu handiz jaiki zen Lluís emaztea ez esnatzeagatik, eta lorategira irten zen. Esku-argia eskuan zuela joan zen haragi bolaren bila. Bere horretan kausitu zuen, haritzaren azpian. Hartu eta etxera eraman zuen. Sukaldeko fluoreszentearen argitan begiratu eta Vicenç Ballador etorri zitzaion gogora. Vicenç Ballador, Lluís koldar bat zela gogoan hartua. Inor egiazko laboraria den ala ez den argi frogatzen duten egoera horietakoa baitzen hura. Nor den zaildua eta nork dakien zer egin behar den. Gezurra esango ziola erabaki zuen. Bola jan bazuen ere, lepazuria hil egin ez zela, alegia. Edo kanpoko katuek jango zutela iradokiko zion. Eta berari eskopetaz akaba zezala eskatu. Orduan, komunera joan eta zuloan beheiti jaurti zuen bola.

Eskuak garbitu zituen, ohean sartu aurretik. Bai eta haiei usaina hartu ere. Xaboi eta haragi gordin usaina zuten. Butifarra gordinarena. Arrosa eta xurixka. Victòriaren amak, bizirik zelarik butifarra maneatzeko zuen garaian, punta bat mozten zion beti paderan pausatu aurretik, ogi puska baten gainean ongi zabaldu eta pozik jaten zuen ondoren, mokadu gozoena bailitzan. Izutu egiten zuen Lluís irudi hark. Andreak kontatzen zuenez, etxean zerria hil eta butifarrak eta fuetak egiten zirelarik, bizitza guztian eman zioten berari haragi pikatua dastatzera, gatz edo piperbeltz eskas ote zen esateko. Eta, kontatzen zuen, oroitzapen gozoak ekarri ohi zizkion zapore hark. Laborariak ziren Victòriaren gurasoak. Maizterrak, etxe zaharra euren ez zelako utzi behar izan zutenak, berrituz gero, bertan bizi nahi izango baitzuten jabeek. Alde egin eta arian-arian behera etorri zen Victòriaren ama, hil arte. Lekuz aldatuta zuhaitza ezin bizi izan balitz bezala. Urte batzuk gehiagoan iraun zuen Victòriaren aitak. Hainbeste aurreztuak ziren biak, bizi guztia lanean gau eta egun eman ondoan, eta Sorraboniarako sarreraren erdia ordaindu zuen gizonak.

–Victòria, ai amak ikusiko bagintu, gu orain etxejabe eginak.

HONA HEMEN goiza, kanpoan, teilatuaren gainetik goratzen, lepezuria txitoak jatera beste etxe batera joan zenetik hemezortzi urte geroago.

Eta hona hemen leiho guztietatik sartzen den argia, geldiezina, armiarmen modukoa. Eta hona hemen Ada, gosaritan. Eta hona hemen Adaren adatsa, gaztaina baten itxurakoa, eta Adaren betile laburrak baina trinkoak, eta bekainak ez horren kurbatuak, eta aurpegia horren eta horren serioa, eta etxetxori begi ilunak, eta belatz sudur handi polita, eta aho mehea, eta gorputz luzea eta argala, eta Adaren oin eta esku handiak eta zango oreztatsuak, ogi xerra xigortu bat irensten. Hona hemen Victòria, sukaldetik sarrerara eta sarreratik sukaldera, pozik etxea beterik dagoelako. Eta hona hemen Quim, goian, begiak irmo ixten, loa galarazi eta haietan biharamuneko ajeen eskuetan utziko lukeen argi izpirik ez dadin sar.

Hona hemen Ada, Victòriari dagokion pertsonaiaren potret zaindua eta ongi neurtua egin ahal izateko ondo-ondotik segitu beharra duela azaltzen. Eta hona hemen Victòria, galdezka:

–Baina normal mintzatu ahal izango gara?

–Bai, ama, jakina! Oharrak baizik ez ditut hartuko –esan dio Adak.

–Oharrak esango dudan zerbaiten gainean? –galdetu du Victòriak.

–Egingo duzunaren gainean, batez ere. Ez zaitut gogaituko.

Eta hona hemen Ada, Victòriari ile-apaindegira laguntzen; jeepean sartu eta zurrungan hasi da autoa, abiarazi bitartean.

Hona hemen Josefa Puig, beso bat kisutan, behien gaineko istorio bat kontari, ile-apaintzailea tindua ematen ari zaion bitartean:

–Egurasten ari ginen, lasai ederrean –kontatu du–. Igandea zen. Ene suhiarekin eta ene bilobekin, eta goiti begiratu eta behi bat ikusi nuen, behi bat, patxadan, goialdean, amildegi baten ertzean, eta ni izpiliku biltzen –bihotzean zimikoa egiten dit orain, haren usaina aditzen dudan orotan–, eta begiak berriro ere goiti eramane nituenean, amildegian beheiti erroiztu zuen behiak bere burua, ene gainera zuzen-zuzenean.

–Ez nekien behiek pertsoneri eraso egiten dietenik –esan du ile-apaintzaileak.

–Ez nik ere, gainean ikusi eta hireak egin din esan nuen arte. Handia da behia, haatik. Nire gizonak esaten du horrelakoxeak izan ohi direla behiak,

izutzen badira edo taldetik bereizten badira, erotu egiten direla eta hil ere egin zaitzaketela. Eta halaxe gertatu zitzaion honi ere. Ikusi ninduen, bada, eta bere burua mehatxupearan edo sentituko zuen, eta lurrean iltzatu ninduen, oliba baten antzera. Eta bertan hilko ninduen, ene suhiak inguruetan enbor bat topatu eta gainetik kendu izan ez balit.

–Hori da hori –esan du Victòriak.

Eta Ada, atzean, oharrak hartzen heriosuhar.

Eta hona hemen Victòriaren jeep xuria, ile-apaindegitik itzulia, etxe aurrean eguzkitan gelditzen. Hona hemen Loki, mortal itsusia bera, kadira batetik autoari destainaz begira. Loki, lorategiko nagusia, haren gaineko guztiaren eta bertako belar beti moztu berri egartsuaren, eta bertako kadira xuri eta orezta itxurako euli kakaz zipriztinduen, eta bidean tarteko ausartzen zaizkion arkanbele eta satitsu guzti-guztien jabea. Mengela eta horia da katua, begiak eta musu marrukaria baizik ez. Faltsua, gaztainak nola. Ama eta senideak bezain itsusia, baina xuria eta ausarta. Ausarta, bera baita katu guztien artetik bere burua atxitzen uzten duen bakarra. Ez du kontu hori bereziki maite, baina ez da beldurtzen. Baratxe-baratxe hurbiltzen zaio Ada, indioilar zati bat eskutan eta airean hupatzen du brastakoan. Irmo eusten dio gero altzoan, ihes egin ez dezan. Une batean zangoen artetik indarka eta oihuka eta itzuri egiten saiatu ondoan, zurrungaka ere hasten da batzuetan katua.

Hona hemen Quim, izenerako ideiak ematen. Préssec⁴ deitu nahi dio Adak, kolore argia delako. Zalantzarik gabe gaiztoa dela dio Quimek, hain itsusia eta hain zapuztia izaki. Ongi tratatu beharra dela dio, sekula betiko katu izugarria izateko kondenatua den deabruko doilor bat delako ezbairik gabe. Loki dela dio, Odinen anaia gaiztoa. Quimek dioenez, katu mortal itsusia izatera kondenatu du Odinek betikoz eta gatibu segitzen du beti ere han barrenean eta etengabe egiten du horrexegatik marru. Eta grazia egin dio Adari.

Eta hona hemen Loki jangelako leiho-hegira eta Victòriaren loreontzietara igoa, nola bazkaltzen ari diren ikusteko.

Eta hona hemen Victòria mintzo, bi aste geroago:

–Gero aterako dinat katu hila.

–Zein katu hil da, bada? –galdetu du Adak.

–Badun katu bat hilik, loreontzien atzealdean, aulkiaren azpian. Bere burua atxitzen uzten zuena.

–Nola? Loki?

–Hala esan zidan Quimek, zakur bat ikusi zuela –esan du Victòriak.

–Noiz?

–Egun batzuk baditin. Quimek esan zuenez, zarrapo egin zioten katuek zakurrari muturrean eta ehiztari bat agertu zunan orduan. Loreontzien atzeko aldean zagon katuak, ez dun ongi ikusten, baina bere burua atxitzen uzten zuen laranja koloreko hura dela egingo niken –esan du Victòriak.

Hona hemen Lokiren gorputza, loreontzien ondoan lurrean. Intimitatean hiltzen dira katuak. Hona hemen Ada, ikustera joatea gogoan hartua, baina joan ez dena. Victòria kanpoan sumatu duenean, leihotik begira jarri da. Eta hona hemen Victòriaren gorputz argala, gizon batena ia, Adarena bezalakoa, bi loreontziak baztertzen eta pala lurrean zeharrean sartzen. Adats gris ilun laburra mugimenduaren arabera balantzan, begi beltz ttikiak lanera bilduak eta serio. Goratu eta peluxe itxura hartu dio katuari. Ile eroriak inguru guztian. Burua aurreko zangoen artean, lo balego bezala. Biloa opakatu, trakets diseinatu balute bezala.

Hona hemen pala, baratzearen bukaerako lur ilunaren barrenean sartua. Hona hemen lur iluna, katu hilaren gorpua hartzeko tarte nahikoa utzia. Eta hona hemen Victòria lurra berdintzen, legez kanpoko zerbait egiten:

ARTÍCULO 10. ZONAS DE ESPARCIMIENTO Y ENTERRAMIENTO. Los Ayuntamientos habilitarán [...] lugares destinados a enterrar animales muertos o sistemas para la destrucción de cadáveres.⁵

Oin-ohar:

⁴ *Préssec*, prexega edo mertxika, katalanez. (I.O.)

⁵ Espainieraz jatorrizko testuan.

ZAKUR BAT ZUEN LABORARI ON BATEK

Bero handia zegoen eskuineko eskua uzta biltzeko makinan trabatu zuen egunean. Baldar mugiarazten zaituen bero horietakoa, hautsez beteriko bekain hezeetatik harat ikusten uzten ez dizuna, kordelak sugeen modura tenkatzen eta, azkenean, marrazen artean bihurrikatzen dituen.

Eskuineko eskuko hatz ttikia eta hatz nagia galdu zituen, eta hiru hatz eta kurioso xamar sendaturiko orbaina, hegazti xanko baten itxurakoa, gelditu zitzaizkion. Burdineriaren artetik ez zuten azkazal bakar bat ere osorik berreskuratu, baina lanean segitu ahal izan zuen eta okerragoak ere gertatzen ziren, askoz ere okerragoak.

Bero izugarria zegoen bonba topatu zuen egunean ere. Uztailaren erdian alor guztiak manta batez estali izan balituzte bezala. Tenkada sumatu zuenean, traktorea gelditu, goldea goititu, lauzpabost metrotara baztertu eta jaitsi egin zen ondoren. Hasieran, dezente kosta egin zitzaion zer zen ikustea, zohiz estalia baitzen guztiz. Baina ukitu eta gaineko lurra kendu ziolarik, seguruenik Gerra Zibileko mortero bat izango zela pentsatu zuen. Eta grazia egin zion gogotik, berak, Gerra Zibilaren garaikoak, loreontzitan lurperaturiko txanpon bakan batzuk baizik ez baitzituen ordura arte topatu. Kontu handiz heldu zion piezari, bide erditik ateratzeko, eta piztia hark gutxienez hogeita bost kilo egingo zituela pentsatu zuen. Hogeita bost kiloko zakur bat aski gauza ezdeusa da landan bizirik irauteko. Aspertua zen horrenbeste erdipurdiko animalia eskas eta ttikiegi etxaldearen inguruetan lurperatzeaz. Xarbotaz beteriko zabaldi polit batean. Zakur handiangoek hilak ziren, edo autoek, edo muntarik gabeko gaitzek. Landa lurretan, eutsi eta iraun handiko zakur mardulak behar dira eduki, artzain-zakur alemanak edo artzakur zailduak, ilargiari uhurika ekiten dioten eta basurdeari aurre egiteko gauza diren zakurrak. Taques hil zelarik, laguntza eskatu behar izan zion anaiari lurperatu ahal izateko. Zuloa egiteko lehenbizi, zabal eta sakon, eta animalia gaixoa bertaraino garraiatu ahal izateko gero. Artzakur hark bazituen gutxienez hirurogeita hamar kilo eta

zekorra bezain gizen zegoen; egunero laguntzen zion abeltegiraino eta zain edukitzen zuen pikondoaren azpian, eta bertara haurrik, edo adinekorik, edo auzokorik, edo animalia izutirik bildua bazen, eseri egiten zen, lasai, begirune handiz.

Debekatua zen orduan zakurrak etxean lurperatzea. Gorpuen edukiontzira jaurti beharrak ziren. Uda partean, etxera gordetzera lasterka edo beren burua erreka uretan hondoratzera behartuak ikusiak zituen neska-mutikoak, edukiontzitik animalia hilak biltzera etortzen zen kamioiaren haratustel kiratsa ez usaintzeagatik. Urrunetik ematen zuen kamioizaleak abisua, eskuari eraginez edo buruaz keinu eginez. Ez zen inoiz kabinatik jaisten, ez eta geldialdietan luzatzen, eta eskertzekoa zen, herio garraio ibiltzen baitzen gizon hura. Ez zen hura heriotzaren ideia abstraktu eta higieniko bat, arrastorik ere ez segadun horren irudi aratz eta beltz hartatik. Heriotzak eragin sarraskiari darion kirats hori guztia garraiatzen zuen, sudurren barrenaz jabetzen den kirats inbaditzaile bezain higuingarria, garratza eta beroa. Halako jakin-mina pizten zion gizon hark Vicenç Balladorri. Uste zuen zaila behar zuela, inondik ere, sarraski kirats hori etengabe darion inor maite izatea. Nolatan ez zitzaion, bada, gizagaixo hari, azkazal azpian edo buru-azalean haratustelaren kiratsik geldituko, dutxan igurtzi eta igurtzi ari izan arren? Eta bizilagunen eskailera batzuetan imajinatzen zuen, giza bilakaerak zazpi milioi urte egin dituen honetan, jende guztiak berarekin igogailua partekatzeari uko egiten ziola.

Baina tamalgarria zen inolaz ere zakurrak edo katuak etxean lurperatzen ez uztea, eta seme-alabei non zeuden esateko aukerarik ez izatea, eta leku bat eta, haren gainean, xarbot muilo batzuk ez edukitzea. Jende guztiak egin beharrekoa egin balu ere, jende guztia bere animalia kuttunak lurperatzeko behar litzatekeen lur puskaren jabea izan balitz ere, lotsagarria zatekeen hala eta guztiz ere agindu hura. Besteren etxean sartu eta han zer egin behar den esan. Eta tamalgarria ere bazen zakur handi baten, egiaz bizirik irauteko gauza diren mendiko zakur horietako baten, etengabe korritzeko eta libre izateko eta landan bizitzeko sortua den animalia baten jabe izatea eta bizitza guztian itxirik eta loturik edukitzea. Hori ere ezin baitzen egin, zakurrak lotu gabe eta pikondoaren azpian zain eduki, alegia.